

AINTZA ETA ESKERRONA ZURI!

ESKERRAK BIOTZETIK AITA JAUNGOIKOA!

1

Lurreko gauzak leen lez
gaur ezin ikusi,
ederragoak Jaunak
deustaz erakutsi.

2

Gero eta gorrago
nire belarriak,
baina entzuten dodaz
oiartzun barriak.

3

Ezin dot artu gauzen
arrasto-usainik,
obeak badirala
nago gaur jakinik.

4

Gauzak ikutu eta
ia danak bardinak,
gaur sentigarri jataz
ikutu-ezinak.

5

Gauzen gozotasuna
ezin dot dastatu,
gaur mai gozoagoa
Jaunak deust prestatu.

6

Bidean iblteko
anka biak zortu,
baina nire gogoa
Jaunak deust bizkortu.

7

Burua galdu eta
oroimenik gabe,
baina orain egin naz
buruaren jabe.

8

Itzi ondasunak ta
galdu osasuna,
pilatzen nabil galtzen
ez dan ondasuna.

9

Amodioa oztu
ta galdu lagunak,
Jaunak betetzen deustaz
guztien utsunak.

10

Norbera zarrago ta
lagun gitxiago,
Zeu nirekin bazagoz
ni konforme nago.

11

Lurreko bizitza au
badoa gainbera,
ondoren obeagoak
dauka asiera.

12

Bizian Gora dozu
bizitza-eskola,
bertan sartzen danari
on egin daiola!

A. Martzel